



BEASAINDIK

Beasain-Donostia autobus zerbitzua, abian

Orduero astelehenetik ostiralera
6:15etik 21:15etara, eta bi
ordutik behin larunbat eta
igandeetan 8:15etik 22:15era
eskainiko da zerbitzua.



En marcha el nuevo servicio de autobús Beasain-Donostia

Saldrá de Zumarraga y hará paradas en Beasain, Ordizia y Tolosa hasta Donostia y viceversa.

TORI!, herritarren erosketak
modu jasangarri baten bidez
etxe etxe erraz banatzeko
zerbitzu berria, eskura.

03

El Ayuntamiento ha puesto en marcha
un nuevo servicio de alquiler y uso
compartido de vehículos eléctricos en el
aparcamiento de Gernika pasealekua.

06





Leire Artola Ugalde
BEASAINGO ALKATEA

Mugikortasun eredu eta zerbitzu berriak

Gure konpromiso sendoenetako bat Beasain jasangarriago, irisgarriago eta ingurunearekiko errespetuzkoago baterantz aurrera egitea da. Izan ere, ingurumena zaintzea ez da soilik premia bat, baita gure bizi kalitateari zuzenean eragiten dion erantzukizun partekatu bat ere.

Azken urteetan urrats garrantzitsuak eman ditugu ekimen ugari aurrera eramanez, pertsonak hiri-espazioan lehenetsia izateko ibilgailuen gainetik espaloiak eta berdegune berriak hedatuz edo sentsibilizazio kanpainak, egindako bidearen adibide batzuk baino ez dira.

Orain, apirilean, apustu hori indartzen duten bi ekimen pilotu batu ditugu: alde batetik, Tori!, tokiko merkataritzan erosketak modu eraginkorragoan eta jasangarriagoan egiteko erosketen banaketa sistema berria, eta, bestetik, ibilgailu elektrikoaren alokairu partekatuko zerbitzu berria, norberaren autorik gabe mugitzeko alternatiba eroso eta garbia. Aldi berean eta gure egin ditugun beasaindar askoren eskaerei erantzunez, Beasain-Donostia-Beasain autobus zerbitzua martxan hasiko da apirilaren 28an, gure herria hiriburuarekin orduero lotuko duena.

Ekimen hauek herritarren eguneroko bizitza errazteko pentsatu dira, eta, aldi berean, mugikortasun jasangarria bultzatzen jarraitzeko. Keinu txiki hauek,

batuz, gure ohitura moldatzeko joera indartu nahi dugu gure mesederako.

Lanean jarraituko dugu Beasain gero eta bizitoki osasungarriagoa eta atseginagoa izan dadin. Nahi dugun etorkizuna gaur hasten delako, eta guztion artean eraikitzen dugulako.

Uno de nuestros compromisos clave es avanzar hacia un Beasain más sostenible y respetuoso con el entorno. En los últimos dos años hemos impulsado medidas dirigidas a ese fin.

Este mes de abril se han sumado dos iniciativas piloto que refuerzan este camino: Tori!, un sistema de entrega más sostenible y eficiente para compras en el comercio local, y el nuevo servicio de alquiler compartido de vehículos eléctricos. Dos propuestas innovadoras que reducen emisiones y facilitan una movilidad más limpia y sostenible.

Asimismo, el 28 de abril entrará en servicio la nueva línea de bus Beasain-Donostia-Beasain, una reivindicación de las y los beasaindarras que hemos liderado para que nuestro municipio cuente con una conexión con la capital cada hora. Iniciativas para facilitar la vida diaria de las y los beasaindarras. Seguimos trabajando por un Beasain más verde, saludable y comprometido con el futuro de todas y todos.

TORI!

Jaso zure

erosketa

nahi

duzunean


Herritarren erosketak modu jasangarri baten bidez etxetik etxera banatzeko zerbitzu berria da. Tori!-ra atxikita dauden saltokietan erosketa egin eta zure etxeko atariko takillan edo gertuen duzun kaleko takillan jasoko duzu.

Normo aplikazioa erabiliz, erosketak eskuragarriago zaizun takillan uzteko eskaera egin behar da. Erosketa dendatik takillara Txita txirrituzko garraio zerbitzuko banatzaileak eramango du eta aplikazioaren bidez erosketa jasotzeko jakinarazpena iritsiko zaizu. 72 orduko epea dago erosketa takillatik hartzeko.

Recoge tu compra cuando quieras

Se trata de un nuevo servicio de reparto a domicilio que facilita la entrega de las compras a través de una forma eficiente y sostenible. Las compras realizadas en los comercios adheridos a Tori! las recibirás en la taquilla del portal de tu casa o en la taquilla pública más cercana.

Utilizando la aplicación Normo, se solicita la entrega de las compras en la taquilla que resulte más accesible. El transporte de la compra lo llevará a cabo el repartidor del servicio de transporte en bicicleta Txita tras lo cual se envía una notificación a través de la aplicación para recoger la compra. Hay un plazo de 72 horas para retirar la compra.



**DESKARGATU
NORMO
APLIKAZIOA**
DESCARGA LA
APP NORMO



ABANTAILAK

VENTAJAS

01 **Malgutasuna erosterakoan. Erosketak edozein momentutan jasotzeko aukera**

Flexibilidad en la compra.
Posibilidad de recibir las compras
en cualquier momento

02 **Beasaingo merkataritza sustatzen duzu**

Promueves el comercio
de Beasain

03 **Banaketa eraginkor eta jasangarriari esker, ingurumena zaintzen duzu**

Gracias a una distribución
eficiente y sostenible, cuidas
el medio ambiente

BEASAINDIK — 03 — Tori zerbitzua

ARNEDOKO TXOKOA ZAPATADENDA

Rosi Silvestre Delgado



«Animo a probar esta nueva experiencia»

Es una muy buena idea para fomentarla dentro del pequeño comercio de Beasain, para que la gente tenga más posibilidades de acceder a nuestros productos en unos horarios en los que por trabajo u otros motivos, no pueden visitarnos en tienda.

En cuanto a las dificultades, puede resultar más complicado para las personas mayores. En mi caso, el de la venta de calzado, es conveniente probarlo y habría que ver cómo gestionarlo para las devoluciones. De todas maneras, creo que poco a poco se podrá afinar, ahora es un proyecto que está creciendo. Animo a todos/as a probar esta nueva iniciativa.

Udalak martxan jarritako zerbitzu honekin, mugikortasun jasangarria eta irisgarriagoa bultzatu eta noizbehinka autoz mugitzeko premia dutenei irtenbide malgua eskaintzen die



Ibilgailu elektrikoak alokatu eta partekatzeko zerbitzu berria

Gernika pasealekuko aparkalekuan eskuragarri dago ibilgailu elektrikoak alokatzeko aukera. Irtenbide ezin hobea da ibilgailu bat erosteko premiari gabe aldizka beste bat behar dutenentzat, ibilgailu elektriko onura guztiak eskuratzeko aukera emanez, erosketari edo mantentze-lanei lotutako kosturik gabe. Gainera, hirietako Isurpen Gutxiko Eremuetan (IGE) sartzeko eta herrien arteko ibilbide motz eta ertainak egiteko zerbitzu aproposa da.

Alokatu eta partekatu

Ibilgailua alokatzeak eta partekatzeko (car sharing), ibilgailu bat erosteko hasierako inbertsioa, mantentze lanak, aseguruak, eta zergen kostu gehigarriak saihesten ditu. Ingurumenari onurak, malgutasuna eta erabilgarritasuna dira ibilgailu elektrikoaren abantaila batzuk eta Guppy-ren aparkaleku sareari esker, Bilbo, Donostia, Xixon, Oviedo, Aviles, Santander, Torrelavega eta Madrilen utzi daiteke ibilgailua eta berdin Bilbo, Santander eta Madrilgo aeroportuetan Beasainera bueltan ekarri beharrik gabe.

Guppy aplikazioaren bidez

Guppy aplikazioak alokairua erraz eta azkar kudeatzeko aukera ematen du, eta hurbileko karga puntuei buruzko informazioa ematen du. Zerbitzua erabiltzeko, erabiltzaileek Guppy aplikazioa deskargatu beharko dute gailu mugikorrean, ibilgailuen alokairua kudeatzeko. Informazio guztia eta tarifak www.guppy.es webgunean daude eskuragarri.

Zerbitzuak aseguru integrala eta 24/7 laguntza teknikoa barne hartzen ditu, erabiltzaileei lasaitasuna ematen diena. Gainera, motor elektrikodun ibilgailuak frogatzeko aukera ematen du etorkizunean teknologia elektrikoetara jauzi egin nahi dutenei.

★ Gernikako pasealekuko aparkalekuan alokairurako bi ibilgailu elektriko daude herritarrentzat eskuragarri



En el parking de Gernika pasealekua se encuentran disponibles dos vehículos eléctricos.

Vehículos eléctricos en alquiler: movilidad sostenible y flexible

El Ayuntamiento ha lanzado un nuevo servicio de alquiler y uso compartido de vehículos eléctricos en el aparcamiento de Gernika pasealekua. Está pensado para quienes necesitan un coche ocasionalmente, sin los costes de compra o mantenimiento que conlleva tener un vehículo en propiedad.

Gracias a la app Guppy, el alquiler se gestiona fácilmente y se accede a información sobre puntos de carga. Los vehículos se pueden alquilar y devolver en ciudades

como Bilbao, Donostia o Madrid (y aeropuertos), sin la necesidad de devolverlos a su punto de origen.

El servicio incluye seguro a todo riesgo, asistencia técnica 24/7 y permite probar la experiencia de conducir un coche eléctrico, fomentando así una movilidad más ecológica y accesible.

★ Guppy aplikazioaren bidez kudeatzen da alokairua. El alquiler se gestiona a través de la aplicación Guppy.





Beasain-Donostia autobus zerbitzua abian

Apirilaren 28an jarri zen martxan Beasain-Donostia autobus zerbitzu berria. Orduero astelehenetik ostirala 6:15etik 21:15etara, eta bi ordutik behin larunbat eta igandeetan 8:15etik 22:15era eskainiko da zerbitzua. Zumarragatik irten eta Beasain, Ordizia eta Tolosan egingo ditu geldialdiak Donostiara arte eta berdin alderantziz. Udalak, beasaindarren beharrei erreparatuz, Foru Aldundiarekin burututako bileretan egindako kudeaketaren emaitza izan da.

En marcha la línea de bus Beasain-Donostia

El 28 de abril se puso en marcha el nuevo servicio de autobús Beasain-Donostia. Cada hora, de lunes a viernes de 6:15 a 21:15 horas y cada dos horas los sábados y domingos de 8:15 a 22:15 horas, saldrá de Zumarraga y hará paradas en Beasain, Ordizia y Tolosa hasta Donostia y de igual manera a la inversa. La consecución del nuevo servicio ha sido fruto de la gestión realizada por el Ayuntamiento en las reuniones mantenidas con la Diputación Foral, atendiendo a las necesidades de las y los beasaindarras

San Inazio kalearen itxura berria

San Inazio kaleak itxura eraberritua erakusten du lanak amaitzeaz daudela. Begi-bistakoak diren zoladura, lorazaintza, asfaltaketa eta argiteria lanez gain, kaleko oinarrian lan garrantzitsuak egin dira, argi-indar, gas, ur hornidura eta saneamendu sarea berrituta. Aldaketak, bizilagunen eta merkatarien mesedetan egin dira. Jarraian Esteban Lasa kaleko lanekin jarraituko da.

Nuevo aspecto de San Inazio

San Inazio kalea muestra un aspecto reformado con las obras casi finalizadas. Además de los evidentes trabajos de pavimentación, jardinería, asfaltado y alumbrado, se ha llevado a cabo en el subsuelo la renovación de la red de electricidad, gas, abastecimiento de agua y saneamiento. La remodelación se ha llevado a cabo en beneficio de residentes y comerciantes. Las obras continúan ahora en Esteban Lasa kalea.

LEHEN



ORAIN



Lokal hutsak betetzeko diru laguntzak

Beasainen merkataritza sektorea biziberritzeko helburuz, merkataritza jardueraren bat lokal huts batean abian jarri edo martxan dagoen negozioa eskualdatu nahi dutenentzako laguntzak kaleratu ditu Udalak.

Kopuruak: lokalak alokatzeko lehenengo urtean alokairu gastuaren %50, (gehienez 300€ hilean). Bigarren eta hirugarren urtean alokairu gastuaren %40 (gehienez 200€ hilean). Lokala erosteko. Katastroko balioaren %4 izango da, gehienez ere 2.000€. Azaroak 30ean amaituko da eskaerak aurkezteko epea.

Subvenciones para el alquiler de locales vacíos

Con el objetivo de revitalizar el sector comercial en Beasain, el Ayuntamiento ha lanzado ayudas para aquellas personas que quieran poner en marcha alguna actividad comercial en un local vacío o traspasar el negocio en marcha.



Cuantías: Alquiler: 50% del gasto de alquiler del primer año (máximo 300 €/ mes). Segundo y tercer año 40% del gasto en alquiler (máximo 200 €/ mes). Compra del local. Será del 4% del valor catastral con un máximo de 2.000 €. El plazo de presentación de solicitudes finaliza el 30 de noviembre.



El Polideportivo Antzizar supera la cifra de abonados

El Polideportivo Antzizar de Beasain ha registrado un notable incremento en el número de socios y socias desde el fin de la pandemia, logrando no solo recuperar las cifras anteriores a la crisis sanitaria, sino incluso superarnos con más de 6.000 personas abonadas.

Otro aspecto destacable es que Antzizar es el polideportivo más utilizado en Gipuzkoa con la tarjeta Mugiment y el tercero de Euskadi, tras los polideportivos de Bilbao y Portugalete. Así, en 2024

se contabilizaron 7.675 accesos de personas provenientes de otros municipios, dejando unos ingresos de más de 37.000€ en el polideportivo. Al mismo tiempo, las personas socias de Antzizar hicieron uso de otros polideportivos adheridos al programa en 1.860 ocasiones durante 2024.

Esta tendencia positiva pone de manifiesto la confianza de la ciudadanía en las instalaciones, así como la valoración positiva de la calidad del servicio ofrecido.

Antzizar Kiroldegiak abonatuak kopurua gaitu du

Antzizar Kiroldegiak igoera nabarmena izan du bazkide kopuruan pandemia amaitu zenetik, eta osasun krisiaren aurreko zifra berreskuratzeari gain, gaitu ere egin ditu, 6.000 bazkidetarik gora dituz orain.

Bestalde, Antzizar kiroldegia "Kirol Txartela Mugiment" programaren bidez Gipuzkoan gehien erabiltzen den azpiegitura da eta Euskadiko hirugarrena, Bilbo eta Portugaleteko kiroldegien atzetik. Horrela, beste herri batzuetako erabiltzaileen 7.675 sarrera izan ziren 2024an, kiroldegiko kontuetan 37.000 euro baino gehiagoko diru sarrera lortuz. Aldi berean, Antzizarreko bazkideek 1.860 erabilpen egin zituzten urtean zehar beste kiroldegi batzuetan programa honi esker.

Joera positibo horrek agerian uzten du herritarrek instalazioetan duten konfiantza, bai eta eskaintako zerbitzuaren kalitatearen balorazio positiboa ere.

Eskerrik asko, Beasain!

Beasaingo Udalak, eskerrik beroena eman nahi die beasaindarrei Itzulia Beasainen egon den bi egunetan eskaintako babesagatik eta sortutako eragozpenen aurrean emandako erantzun onagatik.

¡Gracias Beasain!

El Ayuntamiento de Beasain quiere mostrar su más sincero agradecimiento a las y los beasaindarras ante el ambiente creado durante los dos días que la Itzulia ha estado en Beasain y por la buena respuesta dada ante las molestias generadas.



OLARAN

Parte-hartze prozesua Proceso participativo

Olarango espazio publikoa zertara bideratu elkarrekin erabakitzeko, erakineria bisitak eta parte-hartze tailerrak antolatu ditu Beasaingo Udalak. Zatoz!

El Ayuntamiento de Beasain ha organizado visitas al edificio y talleres participativos para definir el destino del espacio público de Olaran. ¡Acércate!

Tailerretarako ordutegiak eta izen-ematea (ezinbestekoa inprimakia betetzea QR-aren bitartez):

Horario e inscripciones (imprescindible rellenar formulario a través de QR):

Olaran
ezagutzeko
bisita gidatuak

Visitas guiadas
para conocer
Olaran

(gehienez 20
persona saioko
máximo 20
personas
por sesión)

MAIATZAK 12,
ASTELEHENA,
18:00ETAN
LUNES 12 DE
MAYO, A LAS
18:00



MAIATZAK 13,
ASTEARTEA,
12:00ETAN
MARTES 13 DE
MAYO, A LAS
12:00



MAIATZAK 13,
ASTEARTEA,
18:00ETAN
MARTES 13 DE
MAYO, A LAS
18:00



PARTE-HARTZE
TAILER IREKIA
TALLER ABIERTO
DE PARTICIPACIÓN

MAIATZAK 21,
ASTEAZKENA, 18:00ETAN
MURUMENDI ESKOLAN.
MIÉRCOLES 21 DE MAYO,
A LAS 18:00
EN MURUMENDI
ESKOLA

